

PRENTSA OHARRA

Irizarrek Produktuaren Ingurumen Adierazpena eskuratu du, eta ziurtagiri hori eskuratzen duen lehen enpresa da sektorean

2019ko ekainaren 5a

Irizar markak urrats bat eman du bere produktuen iraunkortasunarekin, gardentasunarekin eta ingurumeneko inpaktuarekin duen konpromisoan, eta Produktuaren Lehen Ingurumen Adierazpena eskuratu du (The International EDP System), zeinarekin ingurumenaren esparruan ziurtagiri hori lortu duen sektoreko lehen enpresa baita munduan.

4 urte baino gehiago dira Irizar bitzta zikloaren analisirako metodologiak (ACV) aplikatzen ari dela eta produktu kategoriaren gaineko erregelak (PCR) ezartzen, bere autokarrek, errekuntzakoek zein hibridoek eta elektrikoek, ingurumenaren ikuspuntutik duten profila ebaluatzeko eta, ondorioz, iraunkortasunean etengabe hobetzen laguntzeko. Eta aurtan eskuratu du Produktuaren Lehen Ingurumen Adierazpena, eta orain nazioarteko ziurtagiri hori eskuratu duen munduko lehen enpresa da sektorean

Produktuaren Ingurumen Adierazpenak (PIA) ISO 14025 arauaren arabera garatu dira, eta dimentsio berri bat eranstean diote merkatuari, produktuek eta zerbitzuek ingurumenean duten eraginaren norainokoaz informatuz. III. Motako Ekoetiketa Programaren testuinguruan sortzen eta erregistratzen dira, EPD nazioarteko sistemaren pean.

Adierazpen honek abantailak emango dizkie bezero eta merkatuei, izan ere, autokar bat ingurumenaren ikuspegitik baloratzeko modu zientifiko eta neutrala eskaintzen du, honako alderdi hauek baloratuta: ingurumeneko inpaktua produktuaren bizitza zikloan, baliabide fosil berriztagarrien kontsumo energetikoak bizitza zikloaren etapa bakoitzean, igorpen kutsatzaileak edo gai arriskutsuak fabrikazioan. Horrez gain, ingurumeneko alderdiekin zerikusia duten produktuaren prestazioak, ingurumen kudeaketarako sistemak edo ekodiseinukoak erakundean eta produktuaren bizitza erabilgarriaren bukaera kudeatzeko modua ere baloratzen ditu.



Hala, Irizarrek bikaintasun iraunkorraren bila jarraitzen du, eta zerbaitegatik parte hartzen ari da une honetan **Ekonomia Zirkularreko eta Efizientzia Energetiko eta Ekoberrikuntzako proiektuetan**. Ingurumena zaintzeko, produktuak ikuspegi holistikoarekin garatzen eta fabrikatzen ditu, eta produktuen ingurumeneko inpaktuan funtsezkoak diren alderdien efizientzia optimizatzerara bideratu ditu bere ahalegin guztiak.

Ingurumeneko irizpideak aplikatzen ditu produktuen diseinu eta garapen fasetik: trakzio sistema eta bateriak, erabilitako lehengaiak eta osagai guztien kudeaketa bizitza baliagarriaren amaieran, hornidura katetik eta ekoizpenetik, erabiltzen diren arte eta ibilgailuak birziklatzeko azken uneraino ere bai.

Etorkizuna modu iraunkorrean ikusten

Marka, teknologia eta **iraunkortasuna** dira Irizar Taldearen etorkizuneko estrategiaren oinarrian dauden hiru zutabe nagusiak. Irizarrentzat, iraunkortasuna funtsezko printzipio korporatibo bat da, eta mundu hobe bat eraikitzea esan nahi du.

Gaur egun, ekonomiaren, gizakien eta ingurumenaren aldetik epe luzean iraunkorra izango den bikaintasuna lortzera bideratzen ari da bere ahalegin guztiak. Horregatik, modu iraunkorrean jarduten du, egunetik egunera lehiakorrako izateko, epe luzean aberastasuna eta enplegua sortzeko, eta gure interes talde, pertsona, bezero eta lankide guztien eta gizartearen premiak asetzeko. Bere lehentasunetako bat ere bada ingurumena babestea eta ingurunea zaintzea, etorkizuneko belaunaldientzat. Izan ere, gaurko erabakiek historiaren bidea eta etorkizuna aldatu ditzakete.

2013tik Nazio Batuen Munduko Ituneko hamar printzipioekin konprometituta dago, zeinak giza eskubideei, lan eskubideei, ingurumenari eta korrupzioaren kontrako borrokari buruzkoak baitira. Eta NBEren 2030 Agendan jasotako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) dira, hemendik aurrera, etorkizuneko garapenaren eta eguneroko jardueraren esparrua. Garapen Iraunkorreko 17 helburuak funtsezko zutabetzat hartuta, Irizarrek helburu anbiziotsu horiek lortzen laguntzeko biderei ekin dio.

Hauek dira iraunkortasunaren alorreko jarduketak horiek biltzen dituzten bere historiako mugarri garrantzitsuenetako batzuk:

- 1998an, Irizar da **ISO1400** ziurtagiria lortzen duen lehen autokar fabrikatzailea Europan.
- 2000. urtean **Enpresa Bikaintasunaren Europako sari** ospetsua irabazi zuen



(European Quality Prize), EFQMren eskutik (the European Foundation for Quality Management),

- 2009an, krisian bete-betean geundela, iraultza estrategikoa egin zen Irizarren, eta ikuspegi iraunkorra duen autokar integralen fabrikatzaile izatera igaro zen. Aldi berean apustu sendoa egin zen dibertsifikazio industrialaren eta teknologiaren alde, estrategia hedatzeko ezinbesteko premiak ziren heinean. Taldean enpresak sartzeak Taldearen posizionamendu teknologikoa indartu zuen, eta horrek lagundu zion bere produktuen garapenean irmoki aurrera egiten.
- 2011n Irizar markako autokar integralen gama osoa merkaturatu zen, eta aldi berean **hiriatarako mugikortasun iraunkorreko proiektuari ekitea** erabaki zen.
- 2013an **Nazio Batuen Munduko Itunarekin** bat egin zuen.
- 2014an, Irizar Taldearen zero igorpeneko **lehen autobus %100 elektrikoa** aurkeztu zen.
- 2016an, **teknologia hibridoa** duten lehen autokarrak atera ziren merkatura.
- Irizar **Ingurumen Sari Nazionalaren irabazle** bihurtu zen, Espainian, produktu-zerbitzu kategorian, eta Europako finalista izatera igaro zen, Espainia ordezkaturata. Era berean, klima aldaketarako dituen **jardunbide egokiak aitortu zitzaizkion** Euskadin.
- 2017an, 18 metroko ibilgailu artikulatu %100 elektrikoa, zero igorpenekoa eta pantografo bidez azkar kargatzen dena aurkeztu zen. Ibilgailu horrekin, Irizarrek **Urteko autokarrik hoberenaren sari internazionala** irabazi zuen **eta Urteko autokar fabrikatzaile izendatu zuten Europan**. Gero, urteko autobusaren saria eta **urteko ibilgailu industrial ekologikoaren** saria ere eskuratu zituen.
- 2018an, Irizar e-mobility lantegia inauguratu zen. **Soilik elektromugikortasuneko soluzioak garatzen dituen lehen enpresa da Europan**. **2019tik aurrera lantegi horretan kontsumitzen den energia guztia modu iraunkorrean sortzen da, eguzki energia fotovoltaikoko parkeetan.**
- 2019an, **Klima 2050** ekimenarekin bat egin du, zeina Europar Batasunak hartutako konpromisoa baita. Euskal Herrian, KLIMA 2050 Estrategiak berotegi efektuko gasen igorpenen %40ko murrizketa ezartzen du 2030erako, 2005arekin alderatuta, eta



%80koa 2050era. Era berean, 2050erako espero da energia berriztagarriaren kontsumoa %40 izatea azken kontsumoarekiko.

- 2019an, Irizarrek **Produktuaren Ingurumen Adierazpena** eskuratu du, eta **ziurtagiri hori eskuratzen duen munduko lehen enpresa da sektorean**

Informazio gehiago:

Ana Eceiza,
aeceiza@irizar.com + 34 667181833
+ 34 667181833